

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK, 2016KO IRAILAREN 25EKOAK

**EUSKO LEGEBILTZARRA OSATZEKO ETA LEHENDAKARIA IZENDATZEKO EGUTEGIA
XI. LEGEGINTZALDIA (2016-2020)**

EKINTZA	DATA	OHARRA
Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako bozketa	2016-09-25	LHLren 46.3 art.: Bozketa, hauteskundeetarako deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, berrogeita hamalagarren egunean egingo da. (2016-08-02) (02-08-2016)
Boto-kontaktak Araba/Alava, Bizkaia eta Gipuzkoako LHHBetan	2016ko irailaren 30etik urriaren 4ra	LHLren 124. art.: Boto-kontakteta orokorra Lurrealde Historikoko hauteskunde-batzordeak bozketa-egunaren ondorengo bosgarren egun baliodunean (irailaren 30a) egin eta, beranduen, urriaren 4an bukatu beharko du.

EKINTZA	DATA	OHARRA
LHHBk hautetsiak aldarrikatzea	<p>2016-10-06</p> <p>Data zehazteko kontuan hartu da 2016ko LBHetan, Bizkaiko LHHB izan zela aldarrikatzen azkena)</p>	<p>LHLren 129.1 art.: Hautetsien aldarrikapena, beranduen, bozketa-egunaren ondorengo hogeigarren egunean (urriaren 15a) egin behar da. 2016ko LBHetan aldarrikapenak egin hauetan egin zituzten: Arabako LHHBk urriaren 3an, Gipuzkoako LHHBk urriaren 5ean eta Bizkaiko LHHBk urriaren 6an.</p> <p>Hautagai-zerrendek Batzordearen boto-kontaketa orokorraren aurkako errekurtsorik aurkeztu ezean, aldarrikapena egiteko epea urriaren 3an ireki liteke.</p>
Eusko Legebiltzarrean egiaztatutun 1/3 (hau da, 25 egiaztatutun) aurkeztea	<p>2016-10-13</p> <p>Data zehazteko kontuan hartu da 2016ko LBHetan EAJk bere 28 egiaztatutunak aurkeztu zituela Bizkaiko LHHBk hautetsien aldarrikapena egin eta 7 egun geroago)</p>	<p>LBEren 4.1 art.: ez du legebiltzarkideek egiaztatutun 1/3 Legebiltzarrean aurkezteko eperik ezartzen. 2016ko LBHetan hauek akreditatu ziren: urriaren 11n Ahal dugu-Podemoseko 11k, urriaren 13an EAJko 28ak, urriaren 14an EH Bilduko 18ak, urriaren 17an PPko 9ak eta urriaren 18an PSE-EE PSOeko 9ak.</p> <p>Hala ere, Legebiltzarra osatzeko Lehen Osoko Bilkura deitzeko 15 egun baliodun daude, Legebiltzarreko 25 kide akreditatzen diren egunetik kontatzen hasita, beraz, 2016-10-13tik aurrera.</p>
Legebiltzarreko Mahaia biltzea Legebiltzarra osatzeko data zehazteko	<p>2016-10-13</p> <p>2016ko LBHetan gertatutakoaren arabera, zehazten da data</p>	<p>LBEk ez du ekintza horretarako eperik ezartzen.</p>

EKINTZA	DATA	OHARRA
<p><u>Lehen Osoko Bilkura:</u> Eusko Legebiltzarra osatzea eta hurrengo Osoko Bilkurarako eguna zehaztea</p>	<p>2016-10-21</p>	<p>LBEren 4.1 art.: Legebiltzarra osatzeko bilkura egiteko, gehienez ere, 15 egun balioduneko epea ezartzen du, legebiltzarkideen heren bat akreditatzen direnetik kontaktzen hasita.</p>
<p><u>Bigarren Osoko Bilkura:</u> Bateriaezintasunen Behin-behineko Batzordeko kideak izendatzea Osoko Bilkura eginda, Bateriaezintasunen Behin-behineko Batzordea osatu zen eta haren kideak aukeratu ziren. Batzordearen osaera Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialaren 3 zk.an 38. orrialdean argitaratuta dago.</p>	<p>2016-10-27</p>	<p>LBEk ez du 2. Osoko Bilkura egiteko datarik ezartzen.</p> <p>LBEren 6.art.: Osoko Bilkura horretan bakarrik Batzorde horretako kideak izendatuko dira.</p>
<p>Bateriaezintasunen Behin-behineko Batzordearen bilera, bateraezintasunei buruzko txostena aztertzeko eta Eusko Legebiltzarreko 3. Osoko Bilkurara bidaliko duen irizpena onartzeko.</p>	<p>2016-11-07</p>	<p>LBEk ez du Bateriaezintasunen Batzordearen bilera egiteko eperik ezartzen.</p> <p>2016ko LBHetan Batzorde horrek bilera egin zuen 2. Osoko Bilkura egin ondorengo 5. egun baliodunean.</p>

EKINTZA	DATA	OHARRA
Bozerramaileen Batzordearen bilera, Lehendakaria izendatzeko bozketa-prozedurari buruzko Lehendakaritzaren ebazpen-proposamena onartzeko.	2016 -11-10 (09:30ean)	
<u>Hirugarren Osoko Bilkura:</u> Bateriaezintasunen Behin-behineko Batzordearen irizpena onartzea eta Lehendakariaren inbestidurarako data ezartzea.	2016-11-10 (10:00etan)	<p>LBEren 7. art.: Bigarren Osoko Bilkuratik kontatzen hasita, gehienez ere, 20 egun balioduneko epean Batzordearen irizpena hirugarren Osoko Bilkuran aurkeztuko dela ezartzen da, irizpena onar dezaten.</p> <p>LBEren 8. art.: Osoko bilkura horretan hauek baino ezin izango dira egin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bateriaezintasunei buruzko irizpena eztabaidatu eta onartu. - Lehendakaritzak inbestidura-saioaren eguna eta ordua iragartzea .
Lehendakarigaiak aurkeztea	Azken eguna 2016ko azaroaren 18a	<p>LBEren 165.2. art.: Hautetsiak Mahaian aurkeztu behar dira, gutxienez, 4. Osoko Bilkura (Lehendakariaren inbestidura-saioa) hasi baino 72 ordu baliodun lehenago.</p> <p>Lehendakarigaiak: Iñigo Urkullu Renteria (EAJ-PNV) eta Maddalen Iriarte Okiñena (EH Bildu)</p>

EKINTZA	DATA	OHARRA
<p><u>Laugarren Osoko Bilkura:</u> Lehendakariaren inbestidura, gehiengo osoz.</p>	<p>2016-11-23 (09:30ean)</p>	<p>LBEren 165.1. art.: Legebiltzarraren Lehendakaritzak, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, 4. Osoko Bilkura deituko du.</p> <p>LBEren 3,4 eta 5. art.: Osoko Bilkura horrela egituratuko da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 09:30ean bi hautagaien hitzaldiak (hautagai bakoitzak 90 min.) 2. Saioa eten eta berriz ere 14:30ean hasiko da. 3. Taldeen txanda (txikienetik handienera) 30 min. 4. Hautagaien parte hartzea taldeei erantzuteko (bakoitzak 30 min.) 5. Taldeetarako erantzuteko txanda (bakoitzak 10 min.) 6. Saioa etengo da eta berriz ere hasiko da <u>azken bozketa</u> egiteko: Lehen ere aipatu dugun LBEren 165 artikulua araber, legebiltzarkide bakoitzak bozkatuko du berak nahi duen hautagaiaren izena esanez (izenezko bozketa) eta Lehendakaria bakarrik gehiengo osoz aukeratu ahal da. Kontuan hartu behar da, Erregelamenduko 165.11 artikulua araber, alde bozkatu edo abstenitu behar dela, aurkako botoak ez baitira existitzen, erakundeetan blokeo-egoerak ekiditeko. <p><u>Bozketaren emaitza:</u> Lehendakari aukeratzeko beharrezko boto-kopurua: 38. Emaitza izan da Iñigo Urkullu Renteria 37 boto (28 EAJ-PNV eta 9 PSE-EE PSOE), Maddalen Iriarte Okiñena 18 boto (18 EH BILDU) eta 20 abstentzio (11 Elkarrekin Podemos eta 9 PP).</p>

EKINTZA	DATA	OHARRA
<p><u>Bosgarren Osoko Bilkura.</u> Lehendakariaren inbestidura, gehiengo soilez.</p>	<p>2016-11-24 (1)</p>	<p>LBEren 165.6. art.: <u>Azken bozketa:</u> Lehen ere aipatu dugun LBEren 165 artikulua araberako, legebiltzarkide bakoitzak bozkatuko du berak nahi duen hautagaiaren izena esanez (izenezko bozketa) eta Lehendakaria bakarrik gehiengo soilez aukeratu ahal da. Kontuan hartu behar da, Erregelamenduko 165.11 artikulua araberako, alde bozkatu edo abstenitu behar dela, aurkako botoa ez baitago erregelamendu horretan jasota.</p> <p><u>Bozketaren emaitza:</u> Boto gehien lortzen duen hautagaia da Lehendakari hautatzen dena. Emaitza izan da Iñigo Urkullu Renteria 37 boto (28 EAJ-PNV eta 9 PSE-EE PSOE), Maddalen Iriarte Okiñena 18 boto (18 EH BILDU) eta 20 abstentzio (11 Elkarrekin Podemos eta 9 PP).</p>
<p>Gernikako BNetan Lehendakari-kargua zin egitea.</p>	<p>2016ko azaroaren 26a</p>	<p>LBEren 167. art.:</p>

OHARRAK:

- (1) Hautagai-zerrenda bozkatuenen arteko berdinketa egonez gero, 24 orduko epean erabakiko da beste bozketa baten bitartez. Bozketa berdinduta geratu diren hautagai-zerrenden artean bakarrik egingo da eta boto gehien lortzen duena izango da aukeratua. (LBEren 165.7. art.).
 Berdinduta jarraitzen badute, Legebiltzarreko Lehendakaritzak, Mahaiarekin eta Bozeramaileen Batzordearekin batera, hurrengo bozketak egiteko egutegia ezarriko du. (LBEren 165.8. art.).

Laburdurak:

<p>EHAA: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria LBH: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. LHHB: Lurralde Historikoko hauteskunde-batzordea</p>	<p>BN: Batzar Nagusiak LHL: Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko Legea.</p>	<p>JL: 7/1981 Legea, Jaurlaritzari buruzkoa LBE: Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua</p>
---	---	---

Bilbao, 2016ko azaroaren 24a